


**VILLA ARANTZAZU**  
D MAILA**ZUBIAURRE PASEALEKUA 4**

Jose Gurrutxaga, 1912

**Deskribapena**

L formako oinplanoa du, erdisotoa eta bi maila, eta hegaletako batean teilatupekoa; kokapen egokia du partzelan, kotarik altuenean, eta etxera iristeko igoera bat dago. Goiko kokapen bistadun hori balastrada eta guzti egin bi terraza handiz baliatu zuten jatorrizko proiektuan. Horietako batek basamentua egiten zuen eta sarrera nagusia zen, eta bestea, berriz, estalkiko terraza zen, etxearen hegaletako batean. Azken hori desagertu egin zen oinplano osoa hartuz jasodura bat egin zutenean, eta beheko solairuko terrazan aldatu egin dituzte bai kanpoaldeko eskaileren trazatua bai perimetroa bera. Jatorrizko proiektuan horma piko kopetedunak oso eginkizun garrantzitsua zuen, zeren eta dorre gisa ageri zen, aurrera begira, terrazatik gora ateratzen zela; efektu hori, baina, desagertu egin da jada, jasoduragatik. Etxeak neotudor estalki eta baoen modari segitzen zion, hiru bao azpibanatuko multzoekin. Aldaketa handiak izan ditu, eta beheko solairuan zenbait bolumen erantsi dizkiote.

**D mailaren babes araubidea**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: jasodura, terrazaren aldaketa eta atal erantsiak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa bereziak: ez.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.